www.galdakao.net Kurtzeko plaza 1. 48960 Galdakao. Tf.: 94 401 05 00. Faxa: 94 456 78 43. IFK / CIF P4804400B

**DEKRETUA**
Zk.: 444
Data: 2018/04/24

Hiri-udalekuetarako zozketa prozedura
Proceso del sorteo para las colonias urbanas

Galdakaoko Udaleko Hezkuntza eta Euskara arloak 2018ko uztailaren 2tik 20ra hiri-udalekuak antolatu ditu.

El Área de Educación y Euskera del Ayuntamiento de Galdakao ha organizado unas colonias urbanas del 2 al 20 de julio de 2018.

Erabiliko diren azpiegiturek ezartzen dituzten espazio mugak eta, bestalde, holako zerbitzuen eskaera gero eta handiagoa dela kontuan harturik, baliteke jasotako inskripzio guztien artean zozketa egin behar izatea.

Dado lo limitado de los espacios a utilizar y la creciente demanda de este tipo de servicios, se prevé la necesidad de realizar un sorteo de las plazas entre las familias inscritas.

Lehenengoa.- Zozketa jendaurreko ekitaldian egingo da, 2018ko maiatzaren 23an, arratsaldeko 17:30ean, Gandasegi herri ikastetxean. Sarrera librea izango da aforora heldu arte.

Primero.- El sorteo se realizará mediante un acto público que tendrá lugar el día 23 de mayo de 2018, a las 17:30 horas en el C.P. Gandasegi. La entrada será libre hasta completar el aforo permitido.

Bigarrena.- Zozketaren mahaia ondokoek osatuko dute:
Mahaiburua: Hezkuntza eta Euskara arloko zinegotzi delegatua.
Bokalak: Udalekuen kudeaketarako pertsona koordinatzaile bi.
Hezkuntza eta Euskara teknikaria.
Idazkaria: Hezkuntza eta Euskara administrari laguntzailea.

Segundo.- La Mesa del sorteo estará constituida por:
Presidencia: Concejal delegado de Educación y Euskera.
Vocales: 2 personas coordinadoras de la gestión de las colonias de verano.
Técnica de Educación y Euskera.
Secretaria: Auxiliar administrativa de Educación y Euskera.

Hirugarrena.- Zozketak udaleku kokapenaren arabera egingo dira: Aperribai, Usansolo eta erdigunea, bakoitzaren kasuan ondoko gehienezko plaza kopuruak izanik:

| | | |
|---|---|---|
| -Aperribai | | 70 |
| -Usansolo | | 110 |
| -Erdigunea | | 370 |
| | GUZTIRA | 550 |

Tercero.- El sorteo se realizará por ubicaciones: Aperribai, Usansolo y centro urbano, siendo el número máximo de plazas en cada caso el siguiente:

| | | |
|---|---|---|
| -Aperribai | | 70 |
| -Usansolo | | 110 |
| -Centro urbano | | 370 |
| | TOTAL | 550 |

Laugarrena.- Beharrizan berezietako haurren plazak (diskapazitate fisiko, sikiko edota sentsorialak dituztenak), hala nola gizarte laguntzaren bat jasotzen duten familienak (DSBE – diru-sarrerak bermatzeko errenta edo GLL – gizarte-larrialdietarako laguntza), adjudikatuta geratzen dira automatikoki, horrela zozketatik kanpo geratzen direlarik.

Cuarto.- Las plazas de niños y niñas con necesidades especiales (discapacidades físicas, síquicas o sensoriales), así como las de aquellas familias que reciben alguna ayuda social, (RGI - Renta de garantía de ingresos o AES - ayudas de emergencia social) quedan adjudicadas de manera automática, quedando así fuera del sorteo.

Bosgarrena.- Galdakaoko udalerrian erroldatuta ez dauden pertsonak itxaron-zerrendara pasatuko dira automatikoki.

Quinto.- Las personas solicitantes que no estén empadronadas en el municipio de Galdakao pasarán a formar parte automáticamente de la lista de espera.

Seigarrena.- Zozketaren sistema eta prozedura ondoko eran egingo da: inskripzio bakoitzari ausazko zenbaki bat esleituko zaio. Jendaurreko ekitaldian zenbaki bat aukeratuko da itsumustuan. Zenbaki horretatik hasita (berori barne) plazak hurrengo zenbakiei adjudikatuko zaizkie harik eta eskainitako plaza guztiak adjudikatu

Sexto.- El sistema y procedimiento del sorteo será de la siguiente manera: a cada inscripción se le asignará un número aleatorio en previsión de que fuera necesario realizar el sorteo. En acto público será elegido un número al azar. A partir de ese número (incluido) se adjudicarán las plazas a los números siguientes hasta

arte.

Gainontzeko pertsonek zenbakiaren arabera itxaron-zerrenda osatuko dute. Itxaron-zerrendaren lehenengo lekuan zozketan aukeratu den azken plazaren ondorengo pertsona egongo da, eta honela zozketan aukeratu ez diren zenbakiak korrelatiboki jarraituta. Beti ere, Galdakaon erroldatutako pertsonengandik hasiko litzateke zerrenda.

Zazpigarrena.- Zozketa egin ondoren egiaztatzen bada familia unitate bati gertatzen zaiola seme-alaba bat sartu egin dela eta gainontzekoa edo gainontzekoak ez, hau edo hauek automatikoki sartu egingo litzateke/lirateke, familia unitateari eragotzi gabe.

Zortzigarrena.- Itxaron zerrenda 2018ko ekainaren 20ra arte kudeatu eta erabili ahal izango da.

Bederatzigarrena.- Adjudikatuko diren pertsonen behin betiko zerrenda aurreko puntuetan jasotako arauen arabera egingo den zozketatik eta dagozkion itxaron-zerrenden kudeaketatik aterako da.

Hamargarrena.- Oinarri hauek, hala nola zozketaren emaitza, Udalaren web orrian emango dira ezagutzera. Zerrendak identifikatuta agertuko dira eskabide bakoitzari esleitu zaion zenbakiaren bidez, pertsonen pribatutasuna gordetzearren.

llegar al total de plazas ofertadas.

El resto de personas pasará a establecer una lista de espera por orden numérico. Se situará en primer lugar de la lista de espera, la persona siguiente a la última con plaza elegida en el sorteo, completándose siguiendo el orden correlativo de los números no seleccionados, comenzando en todo caso con las personas empadronadas en el municipio de Galdakao.

Séptimo.- En el supuesto de que una vez efectuado el sorteo se comprueba que para una unidad familiar se dé la circunstancia de que uno/a de los/as menores haya sido admitido/a y el resto no, éstos/as serán admitidos/as de forma automática, con el fin de no romper con dicha unidad familiar.

Octavo.- La lista de espera se podrá gestionar y utilizarse hasta el día 20 de junio de 2018.

Noveno.- El listado definitivo de personas adjudicadas será el resultante del sorteo según las normas anteriormente recogidas y de la gestión de las correspondientes listas de espera.

Décimo.- Las presentes bases, así como el resultado del sorteo se darán a conocer en la página web del ayuntamiento. Los listados aparecerán identificados a través del número asignado a cada solicitud, con el fin de preservar la privacidad de las personas.

Ibon Uribe Elorrieta
Alkatea

Galdakaoko Udala
Ayuntamiento de Galdakao